

• OARSO BIDASOKO •

HITZA

OSTIRALA, 2026KO
MARTXOAREN 13A
bidasoa.hitza.eus
oarsoaldeia.hitza.eus
992. ZENBAKIA

Iristear da euskararen emozioa

Ostegunean hasiko da Atharratzen
AEKren 24. Korrika. Bidasoko eta
Oarsoaldeko herriak hilaren 24an
eta 25ean zeharkatuko ditu • 3-27

**Korrika zabaltzen duten
furgonetak, Oiartzundik
Euskal Herrira • 14-15**

**Euskaraz bizi nahi
dutenen pizgarri da
Korrika • 18-21**




24. Korrikaren atal berezia

albisteak, argazkiak, zuzenekoa...



Oarsoaldea:
labur.eus/korrikaOH2026

Bidasoa:
labur.eus/korrikaOB2026



jarraitu HITZArekin herriz herri!

24. Korrikako produktu sorta bat
dugu HITZAKIDE batentzat
Korrikan ongi hornituta izateko

Parte hartzeko epea: Martxoak 17

Eta Korrika hasi eta gure
herrietatik pasa bitartean
Errigorako sorta bat zozkatuko
dugu HITZAKIDEen artean

Parte hartzeko epea: Martxoak 25



Parte hartzeko joan
HITZAKIDE TXOKOra



• OARSO BIDASOKO •

HITZA

Oiartzualdeko Hedabideak S.L.ko
kideak:

Oiartzun Irratia
Orratz! Kultur Elkartea
Antxeta Irratia
Bertako Hedabideak
Pausu media
Lau Haizetara
eta Oarsoaldeko beste
53 eragile

'Hitza' diruz laguntzen duten
erakundeak.

Udalak: Errearteria, Lezo, Oiartzun,
Pasaia, Hondarribia.



Argitaratzailea:

Oiartzualdeko Hedabideak EM

Lege Gordailua:

SS-0793-03.

Zuzendaria:

Urko Etxebeste Petrirena.

Produktzio arduraduna:

Allende Arnaiz Garmendia.

Egoitza nagusia:

Irun kalea 8 behea,
20100 Errearteria-Oretera.

Telefona:

943 34 03 30

E-posta:

oarsobidasoa@hitza.eus

Publizitatea:

Telefona:

647 35 42 54

Posta elektronikoa:

ecarrizo@hitza.eus

HITZA-ko bezeroen arreta zerbitzua
(zalantzak argitzeko,
harpidedun egiteko):

943 30 30 35

harpidetza@hitza.eus

oarsobidasoa.hitza.eus

oarsoaldea.hitza.eus

bidasoa.hitza.eus



Zurikeria morea

**AITZIBER ZAPIRAIN
ETXANIZ**

HENDAIA



Ongi gogoan dut nola
geunden orain dela sei
urte. Bidasoaren alde
batean etxean, jada
COVID protokoloen menpe. Eta beste
aldean, aldiz, herriko etxeetako hau-
teskunde emaitzei begira. Eta Euskal
Irratiak taldeko kazetariok, kalean,
gertakariet so. Aldaketa posibleen
zain.

Biriartun nengoen ni. Ongi gogoan
dut nola atera zen gibekeko atetik
Iriart jauna, hamarkadaz hamarkada
aузapez aulkiaren jabe izandakoa.
Triste baina, haserre zegoen. Hala
iruditu zitzaidan behintzat. Haur tti-
kien pare, berea zen zerbait indarrez
kendu izan baliote bezala. Inori deus
erran gabe egin zuen alde. Solenge
Demarcq Eiguren, talde abertzaleko
hautagaiak irabazi zuen orduan. Eta
gisa bereko aldaketak eman ziren
Lapurdi, Behe Nafarroa, eta Zuberoa
osatzen duten 158 herrien artean.
Ez denetan, baina bai askotan. Ga-
rrantzitsuak diren herrietan gainera.
Alegia, «historikoki» eskuineko eta
frantses politikariet gidaturiko he-
rrietan. Ziburu edota Urruñia besteak
beste. Igande honetan, lehiatuko dira
hautagaiak. Ohi bezala bi itzuli egi-
nen dira.

Zer, nola, zergatik, edo noiz jakin
nahi baduzue, Euskal Irratiak taldean
jarraipen berezia egingen dugu bi
igandez, Euskal Hedabideekin batera.

Joan den ostiralean Hendaia-ko udal
hauteskundeak eztabaida publikoa
antolatu genuen, udaletxean bertan.
Beren arteko eztabaida moderatzea
egokitu zitzaidan. Eta horretan saiatu
nintzen. Bi gizon eta emakume baka-
rra. Saiatu nintzen eztabaidari bidea
ematen, nahiz eta jakin bakoitzaren
parte hartzeak neurtua izan behar
zuela. Alegia, denek minutu kopuru
berdina erabili behar zuten. Su pittin
bat sortu zenerako, ordea, oilarrak
harrotu egin ziren, testosterona na-
gusitu zen mahaiaren bueltan eta
isilik zegoen hirugarren hautagaia.
Abertzalea eta emakumea. Etetea era-
baki nuen, eta beste gai batera pasa-
tzea. Pare bat aldiz gertatu zen egoera
berbera. Ez nintzen batere eroso
sentitu. Batetik, jakin badakidalako
jendeak eztabaida maite duela, eta
beraz, denbora ere eskaini behar ge-
niola horri, baina nolako eztabaida da
atsegin duguna? Elkarri hitza moztan
diona? Tonua igoz parekoa isilarazten
duena?

Hasi orduko gaiak aurkeztu niz-
kien, eta argi utzi genien, ez geniola
feminismoari atal berezik bideratu,
parekidetasunak eta jendarte eredu
inklusiboak zeharlerro izan behar
duela uste dugulako. Eta jakinean
ziren arren Antxeta Irratia komuni-
kabide feminista dela, oroitarazi egin
nien. Baietz egin zidaten buruarekin.
Baina beste behin ere, oso argi gelditu
zitzaidan, hemen haizeak eramaten
dituela hitzak. Oraindik ere, espazio
publikoa okupatzen duten askok ez
dutela askorik ulertu eta zurikeria
morearen bueltan ibiltzen direla
surfean.

Nik, emakume alkate batek gidatu-
riko herri batean bizitzea zer den pro-
batu nahiko nuke egunen batean.

Emozioa betirako izan dadila

Hilaren 19an hasiko da 24. Korrika Atharratzen, eta hilaren 24 eta 25ean zeharkatuko ditu Bidasoko eta Oarsoaldeko herriak. Euskararen aldeko emozio iturri da Korrika, eta une hunkigarri horiek betikotzeko bokazioa du.

URKO ETXEBESTE PETIRENA

mozioa. Sentimen-
duen loratzea. Hun-
kitzeko egunak. Ho-
riek izan daitezke
Korrikak euskaltza-
leen artean sortzen
dituen sentsazioak.

AEKren sostengurako eta aldi berean euskararen susperraldirako bi urteroko jarduera berriz ere hemen da, hilaren 19an hasiko da Atharratzen (Zuberoa) 24. Korrika. 11 egun eta hamar gauren ondoren, hilaren 29an iritsiko da Bilbo-ra. Bitarte horretan emozioen indarrak neurtezinak izango badira ere, arrazionaltasunetik at dauden horiek betikotzeko bokazioa ere badu Korrikak. AEK-k herritarren eskura jartzen duen egitasmo izerditsuaeren mamia, haien euskaltegien sarea laguntzeko aukera emateaz gainera, euskara loratzea baita: euskara dakitenek gehiago eta gehiagotan erabil dezatela, euskarara hurbiltzen ari dienek ikus dezatela badela haiekin batera euskaraz bizi nahi duen komunitate bat, eta euskaratik urrun daudenek senti dezatela Euskal Herrian bizita, bertako hizkuntza Korrikak aldarrikatzen duena dela.

2.250 kilometro eta 3.436 lekuko eramaile izango ditu 24. Korrikak. *Euskara gara* du lelo aurtengoak, eta Nafarroako hegoaldean euskararen zabalkundearen alde ezinbesteko lana egiten ari den Errigora egitasmoa da omendua. 1980ko lehen Korrikan, Oñati eta Bilbo batu zituen hartan, erokeria itxura zuen horrek jada euskaltzaleen agendetan ezinbestean gorritz markatutako hitzordua izango zenik gutxi sinistu-

 **www.pachecoizeta.com**
Kilometro z kilometro,
euskara erro
943 49 18 68
MAMUT
merkatalgunea
Oartzun

 **Gummis®**
BETI ZUREKIN

CIFP - BLAS DE LEZO - LHII



HASIERAKO, ERDI ETA GOI ZIKLOAK
NABIGAZIOA - MAKINAK - URPEKARITZA



Eman izena telefono
honetara deituz:
943 40 40 05

blasdelezo@pasaiaeskola.net



ko zuen. Hala da, ordea. Ehunka mila bihotz batu dira Korrikara ordutik, egun batzuetako zirrara batetik egunerokoan euskararen alde egiteko asmo irmoarekin.

Hilaren 24 eta 25ean iritsiko da 24. Korrika Bidasora eta Oarsoaldera. Jada erdia baino gehiago eginak izango ditu lautada, hiri, mendi eta errepide malkartsuetatik pasa ondoren. Datozen orrialdeetan gure bi eskualdeetan Korrikak dituen taupaden berri eman nahi izan du HITZA-k.

Batzordeak, ezinbestekoak

Oarsoaldeko nahiz Bidasoko herrietatik minutu gutxian pasako da Korrika. Bertako eragileen eta norbanakoen eskuen energia hartuko du lekukoak. Une labur eta hunkigarri

horiez gaindi, ordea, martxa pasa aurretik eta ondoren hainbat dira Irunen, Hondarribian, Lezon, Pasaian, Oiartzunen eta Errenteria-Oreteretan antolatutako jarduerak. Horien denen erantzule tokian-tokian sortu diren Korrika Batzordeak dira, haien bitartez

kanalizatu dira 24. Korrikari ari izaera handiagoa emateko ekitaldi den-denak hainbat aste lanaren emaitza bezala. Ehunka lagun ahalegina eta inplikazioa dago horren guztiaren atzean. Komunitate oso bat, askoz handiagoa den euskararen zaleen komunitate bati ekarpena egin, eta hura indartu nahi duena.

Hilaren 29an emango ditu azken urratsak Bilbon 24. Korrikak. Ordutik harago joan dadila euskararen emozioen festa. Sentimenduak betirako izan daitezela, eguneroko ekintza txiki eta handien bitartez eragin dezatela gure bizitzetan. ■

Hainbat talde eta ordutegi • Errenteria-Oreteretan



YOGA BECKLES

www.yogabeckles.com

Osina Ekogunea (Donostia Kalea 15, Iztieta)
Xarma psikoterapia (Miguel Zabaleta Kalea 2)

yoga_beckles 662168963



labur.eus/beckles

Egin Yoga gurekin!



Goieko

GOI MAILAKO EKOLOGIA

943 634 536 www.goieko.com

Euskara gara!



ANDDE BERASATEGUI GOÑI

HONDARRIBIA

«Komunitate oso baten aldarrikapentzat sentitzen dut Korrika, norbanakoa motibatzen duena»

Korrika niretzat euskararen aldeko borroka da. Gogoan dut, atzerrian ikasten ari nintzenean, nola atzerriko lagunei erakusten nizkien Korrikaren bideoa azaltzeko hizkuntzaren aldarrikapen hau bola bizi dugun. Honen partaide izaten hainbeste pertsona ikusteak nigan sekulako motibazioa piztu zuen euskararekiko grina sustatzeko eta defentsa egiteko. Komunitate oso baten aldarrikapentzat sentitzen dut Korrika, norbanakoa motibatzen duena aurrera jarraitzeko euskararen alde.

Aurten modu askotara biziko dut Korrika. Hondarribian izango naiz, noski; baina Bilboko azken egunera ere joateko asmoa dut. Gainera, Bartzelonan egiten den Korrikara joateko intentzioa ere badut. Ez du axola nora joan, euskal komunitate batekin biziko dudalako beti Korrika.

Zorionekoa naiz. Aurten Hondarribiko Olinpiaden lekukoa eramateko aukera suertatu zait, eta gogo handiz eraman-gotut.



ANDER ELOSEGI ALKAIN

IRUN

«Guretzat, egunero euskaraz egiten dugunontzat, harro egoteko ekitaldia izan da betidanik»

Euskara, gure hizkuntza, aldarrikatzeko ekitaldi bat da, oso harro egoteko modukoa da. Baditu urte batzuk, eta edizioz edizio jendeak horren aurrean erantzuten du, eta gero eta jende gehiago parte hartzerantz animatzen da toki guztietan. Orokorrean, oso polita da.

Ez dut askotan parte hartu, gutxitan izan naiz. Aurreko edizioa, 23. Korrika, Irundik atera zen. Hor bai egon nintzela, eta oso polita izan zen jendeak nola erantzun zuen ikustea eta nola mugiarazi zuen herri oso bat. Oso hunkigarria izan zen. Batez ere, guretzat, euskaldunontzat eta egunero euskaraz egiten dugunontzat, harro egoteko ekitaldia izan da betidanik.

Aurten ere, Korrikak Irun zeharkatzen duenean Korrikarekin bat egingo dut. Ez dakit zehazki non, baina kilometrotxo-ren bat egin, egingo dugu. Ez naiz oso urduri jartzen Korrikaren etorrerarekin, baina behin gertu ikusten dudanean Korrikarekin bat egiteko momentua asko gozatzen dut.



JONE ARRUTI PEÑA

ORERETA

«Korrikak aukera ematen du eragile guztiak batu, eta euskararen bueltan jartzeko»

Oso beharrezkoa da Korrika bere hasieratik. Ikaragarria da hamar egunetan Euskal Herria osorik zeharkatu eta mugitzen duen jende hori guztia euskararen bueltan jartzea; ikaragarria da. Ourretan sekulakoa da, euskal kulturaren bueltan hamaika ekitaldi antolatzen dira Korrika Kulturarekin, eta horrek ere ekarpen itzela egiten du.

Nabarmen jarri beharra dago zenbateko lana egiten duten AEK-ko irakasle eta ikasleek, zenbateko inplikazioa, emozioak, ilusioak... Eta hori guztia haiekin bizitzeko aukera izaten dugu herritarrok euskara indartu eta kalera ateratzeko, ikusarazteko. Sekulakoa da.

Korrika guztietan atera izan naiz orain arte, eta aurten ere tarte txiki batean bada ere egingo dut Korrika nire tabernatik [Arkaitza] gertu pasatzen delako beti, Herriko Plazatik edota errepidetik. Korrikak aukera ematen du sentsibilitate ezberdinak batu eta eragile guztiak euskararen bueltan jartzeko, herriaren ispilu bihurtzen da.

CIFP DON BOSCO LHII



DON BOSCO ALDEA LAN HIRIA

20100 Erretereria

Tel.: 943 510 450

donbosco@donbosco.eus

www.donbosco.eus

PAPER KALEA, 1

20400 Tolosa

Tel.: 943 672 900



**Lanbide heziketa
baino askoz gehiago**





MERTXE LARREA GARMENDIA

LEZO

«**Beharrezkoa da hainbeste jendeak euskararen alde egiten duela ikustea. Tokatzen denean hor gaude»**

Niretzat Korrika akuilu modukoa da. Bai Korrika, zein euskararen alde egiten diren mila gauzak dira akuilua, baina Korrika berezietakoa da. Uste dut ahaztu egiten zaigula euskaldunak garela, eta horrelakoak kontzientzia astintzeko baliagarri dira. Ea euskaraz hitz egiten gehiago hasten garen.

Beharrezkoa da hainbeste jendeak euskararen alde egiten duela ikustea. Tokatzen denean hor gaude, eta horrek poza ematen du. Baina Korrika etorriko da, eta pasako da; urte osoan izan behar dugu, beraz, euskararen aldeko jarrera aktibo hori.

Orratx! Antzerki Taldeko kide naiz. Bertako partaide izateko euskaraz jakitea eskatzen diegu hala nahi dutenei. Gure jarduna euskaratik egiten baitugu. Udalarekin hitzarmena egin genuenean garbi jarri genuen gureak euskarazko antzerki emanaldiak izango zirela, eta euskaraz jakiteaz aparte, euskara erabiltzea dugu xede. Askotan, baina, erabileraren kontua zaila da.



MARIAJE OTAEGI KORTADI

OIARTZUN

«**Urte asko joan dira lehenbiziko ediziotik, baina oraindik ere hori sentitzen dut, emozioa»**

Korrika egutegian markatuta dudan ekitaldi polit bat da. Herria animatzen duen eta euskarari bultzada txiki bat ematen dion egitasmoa da. Korrika eta baita euskararen alde egiten diren beste horrenbeste ekitaldi beharrezkoak direla uste dut, oraindik ere behar baitira horrelakoak jendea animatzeko eta kontzientziatzeko. Oraindik ere batzuegan kontzientzia piztu behar da. Konturatu naiz, nahiz eta euskara jakin, oso erraz jotzen duela jendeak gaztelaniara, eta nik uste dut Korrika eta Euskaraldia bezalako jarduera zein egitasmoak jendea euskaraz hitz egitera animatzeko balio duten festa modukoak direla.

Bileretara ez naiz joan, baina, noski, Korrikan parte hartuko dut. Bihar (larunbata) peto banaketa dago, eta Killirikupe Emakume Taldeak ere parte hartuko du, kilometro bat erosi baitugu eta korrika egingo baitugu goizeko ordu txikitan. Korrikak hunkitu egiten nau. Urte asko joan dira lehenbiziko ediziotik, baina oraindik ere hori sentitzen dut, emozioa.



ALBERTO APILANEZ URKIOLA

PASAIA

«**Gauza asko ezin dira erabaki, baina euskara erabiltzea bai, eta denok gara euskara»**

Korrika niretzat da euskararen alde egiten den 'lasterketa' polit bat, non ez duzun inoiz inor ikusiko goibel, eta bai, berriz, oso pozik. Jendeak aurpegian irribarreka margotuta darama izan egunez, gauez goizaldean, hotzarekin, euripean...

Eta, Korrikaren xedea euskararen aldeko kontzientzia suspertzea eta AEKren euskaltegiarentzat dirua biltzea bada, niretzat, hautu bat egitea ere bada. Eta hautu berbera egiten ari gara, harremanetan, solasaldietan, irakurtzen zein entzuten, euskaraz aritzen garen guztietan. Gauza asko ezin dira erabaki, baina euskara erabiltzea bai, eta denok gara euskara.

Esan nahi dudana da Korrika sekulako pizgarria izango dela irauten duen bitartean, denen ahotan izango baita 'lasterketa' polit horrek duen esanahia. Baina nabaria da Korrikaren 11 egunetatik harago, egunero-egunero egin behar dela lasterka euskararen alde. Esan dudan moduan, hori hautu pertsonaletik dator.



grupo asegi



JAKIN S.L

**AHOLKULARITZA - ASEGURUAK
ERA GUZTIETAKO GESTIOAK**

Morrongilleta 11-13. Errenteria - Orereta. Tel.: 943 51 96 88 - 943 52 75 32



24.korrika *dek*
**Euskara
gara**

*Errenteriako
euskal eskola
publikoa*

Korrikarekin bat





Bizarrain
ikastola

HH-LH 943-34 16 45	BHI 943-89 94 13
-----------------------	---------------------



**Cristobal
Gamon HLHI**

943-89 91 38



**Cristobal
Gamon BHI**

943-89 94 41



**KOLDO
MITXELENA**
Herri Ikastetxea

943-89 91 87



**KOLDO
MITXELENA BHI**

943-89 95 00











**IKASI EUSKARA
DOAN
B2 maila arte!**

Informazioa Oiartzungo Udaleko
Hizkuntz-normalizazio sailean:
Telefonoa: 943 49 01 42
E-maila: euskara@oiartzun.eus



GELDIUNEAK II

Geldiune bat
Korrika badatorrela
kontatzeko;
geldiune bat argazkiari
begira jarrita
gure hizkuntzaren
aldeko aldarriari,
bandera moreen dantzan
herrien arteko elkartasunari,
jarri begira eta esan
zer gehiago ikusten duzun...

MENDI URRUZUNO
ERRENTERIA-ORERETA





«Euskara lehen lerroan jartzeko beharra dugu»

Korrikak badu bere leku garantzitsua Bidasoko herrietan. AEK-k antolatutako egitasmoaren inguruan hainbat ekitaldi eta proiektu aurkeztu dira, Irungo eta Hondarribiko eragileekin elkarlanean. Ez dute lan xamurra AEK-ko kideek, egitasmo erraldoia baita Korrika. Baina gogotsu hartzen dute bi urtean behin tokatzen zaien lana. Maddi Sanz da aurtengo Bidasoko Korrikaren arduraduna, eta argi du Korrikak zer bait berezia pizten duela jendearengan. **Duela bi urte Korrikari hasiera emateko ardura izan zenuten. Nolakoa izan zen bizipen hura?**

Denetarik bizi izan genuen, baina azkenean balorazio oso positiboa egin genuen. Lehen egun hori oso berezia izan zen, eta espero baino arrakastatsuagoa. 18:00etan txosna betetzeko gauza gehiago erostera joan behar izan ginen, beraz, jendeak gogotsu hartu

MADDI SANZ SANCHEZ BIDASOKO KORRIKAREN ARDURADUNA

URKO IRIDOY ALZELAI

zuen eguna, bai. Nik urte hartan ez nuen gaur egun dudan ardura, soilik lehen eguneko arduraduna nintzen, beraz, beste modu batera bizi izan nuen. Ilunak eta akatsak egon ziren, noski, baina apustuen eguna zen, lehen aldia baitzen horrelako zer bait egiten genuela, baina baita azkena ere. AEKtik jakin genuen egoerari aurre egiten, eta gainera herriaren laguntza handia izan genuen. Zoragarria izan zen.

Bi urteren ondoren, Bidasoko Korrikaren ardura jaso duzu.

Lan berria izanik, gauza berriak bizi-

tzen ari naiz. Oraingoan badakigu Euskal Herri osoa ez dela Irunera etorriko duela bi urte moduan, eta beraz, bai, lasaia goaude, baina badaude beste betebeharrak batzuk. Lekuko-hartzeen antolaketak denbora asko eskatzen du, adibidez. Uste dut orain herriari lotuagoa nagoela, azken finean herrietako eragileekin nagoelako kontaktuan Korrika bera prestatzen. Eskualdea ezagutzeko aukera bikaina izan dut aurtun.

Duela bi urte Irungo euskaldun sareak mintzatzen zineten, esanez bizirik eta indartsu zegoela. Sare hori berdin mantentzen dela uste al duzue?

Nik uste sare hori etengabe ehuntzen dugula. Korrika edo Euskaraldia bezalako egitasmoekin, eta noski beste hainbatekin lantzen dugun zer bait da. Batzuetan kosta egiten zaigu sortu dugunean sinistea, eta batzuetan ere kosta egiten zaigu aurrera egitea. Herriek badute potentzial handia, eta hori aurtun ederki ikusi dut irundarrekin eta hondarribiarrekin, baina ahotsa eta espazioa ez badiugu ematen, ez dugu aurrera pausorik emango. Sare hau, behin sortua denean, gero berraktibatzea erraza da. Korrikatik kanpo sare hori mantentzea eta jendea euskaren inguruan elkartzea bada ere gure ardura.

Zer pizten du Korrikak jendearengan?

Ez dakit, eta jakin nahiko nuke [barrez]. Korrika da zer bait erraieratik sartzen dena. Jendea bere barrenean astintzen dizkio eta emozio asko ikusten dira bertan. Korrikarekin edota kantarekin jendeak zer bait berezia sentitzen du, eta hori zoragarria da. Herri oso bat



KIRIKOKETA

Ederrak gara!

Aialde, I. Oartzun
943 26 07 78



EGUZKITZA HLHI

PROIEKTUETAN OINARRITUTAKO HEZKUNTZA ESKAINTZA BERRIZTATZAILEA ETA INTEGRATZAILEA

baikara  KALITATEA HEZKUNTZAN

Euskara gara!

Victoriano Juaristi, 1. IRUN 20304. • Tel.: 943 89 91 61.
E-posta: 013372aa@hezkuntza.net • www.eguzkitza.hezkuntza.net





Imanol Saiz Gomez de Segura

martxan jartzen du, helburu argi batekin, euskararen alde egitea. Badira gure eskualdetik hasi eta Beraraino edo Gaintxurizketaraino iristen direnak, emozioak bultzaturik. Berezia eta zoragarria da Korrika.

Aurten hartutako lan guztiaren ondoren, Korrika gogoz hartuko al duzu? Ala, ez duzu ikusi ere egin nahi?

Niri pertsonalki antolatzen dudana disfrutatzea asko gustatzen zait. Duela bi urte, adibidez, oso nekatua nintzen, baina Korrikaren ateratze hori asko disfrutatu nuen. Egunean bertan ere furgonetan lan handia izango dugu, baina bizitzeko momentua da.

Jendea kontzientea al da Korrikaren atzean dagoen lan guztiaz?

Nik uste hein batean baietz. Jendea konturatzen da Euskal Herrian dagoen egitasmo handiena dela. Lurralde guztia puntaz punta jorratzen du, hiru administrazioen barruko udalerriak zeharkatzen ditu... gauza asko dira. Korrika ez da geratzen inoiz. Aurten goa bukatzean, apirilean, 25. Korrika prestatzen hasiko gara. Ez dut uste beharrezkoa denik jendeak dena jakitea, azken finean hau gure lana da eta, beste batek berea duen moduan.

Euskara aldarrikatzeko beharra oraindik presente al dago?

Bai. Euskara lehen lerroan jartzeko behar handia dugu. Euskara ez dago denen eskura. Eskuragarria eta doakoa izan beharko luke. Oldarraldiarekin ikusi dugu nola berriro ere epaitegitan jarri den gure hizkuntza eskubidea. Borroka horretan jarraitzen dugu. ■



Elkarrizketa osoa irakurri nahi izanez gero, bisitatu webgunea: bidasoa.hitza.eus

Sasi loradenda
943 94 34 94
657 70 51 91
Manuel Lekuona etorbidea,
2, behea.
20180 OIARTZUN

ATERPE
HIGIEZIN AGENTZIA
Aterpe, Korrikarekin bat!
▪ Alokairuak eta Salmentak
▪ Bermea + Segurtasuna
▪ Aterpe Agentzia beti irtenbideak proposatzen
Tel.: 943 52 36 94
www.aterpe.com

KALIMA
arropa eta osagarriak
@kalima_errenteria
Biteri, 25, Errenteria-Orereta. Tel.: 943510372

elizalde urte 1976-2026
Euskalduna eta publikoa
www.elizalde.eus
HERRI ESKOLA
HH-LH
943 89 93 92
INSTITUTUA
DBH
943 89 92 83
MANUEL LEKUONA 5, OIARTZUN WWW.ELIZALDE.EUS



Maika Tameron Oiartzunen prestatzen ari diren furgonetan. Imanol Saiz

Lehen kilometroak Oiartzunen dira

Korrikako bi furgonetak eta horiek eramango dituzten gidariak Oiartzungo Ugaldetxo industrialdean prestatzen dituzte. Orain azken ukituekin ari dira, eta igandean gidatze probak egingo dituzte, Atharratzen dena prest izateko.

MIKEL DEL VAL GARCIA

OIARTZUN

Korrika gainean da. Hilaren 19an hasiko da Atharratze eta Bilbo lotuko dituen euskararen aldeko lasterketa masiboa. 11 egunez milaka eta milaka pertsonak Euskal Herri osoko errepideak bere egingo dituzte euskararen aldeko aldarriak lau haizetara zabaltzeko. Baina ikusten dena ikaragarria izan arren, tamaina horretako ekitaldi bat ez da ezerezetik sortzen, eta lan handia dago atzean hura egikaritzeko. Lasterkarien zangoak eta furgonetan motorrak datorren ostegunean martxan jarriko badira ere, Korrikako lehen kilometroak Oiartzunen egiten dira, bertan prestatzen baitituzte furgonetak eta horiek eramango dituzten gidariak.

Lasterketak bi furgoneta izango ditu, eta horiek Oiartzungo Ugaldetxo industrialdean gaitzen dira. Matu Urkia da furgonetak prestatzen aritzen den hoguei kideetako bat. Aurtengoa 24. Korrika izango da, eta Urkia zortzigarrenean hasi zen ibilgailuak prestatzen, 1993an. Hiru hamarkada baino gehiago daramatza furgonetak gaitzen, eta adierazi du zereginak egokitzen joaten direla urte batetik bestera. «Eboluzio bat egon da. Orain sofistikatuagoa da dena», aitortu du Urkiak.

Furgonetak alokatu egiten dituzte, eta Urkiak jakinarazi du modelo bera edo antzekoa hartzen saiatzen direla, altzariak eta armairuak hobeto sartzeko. Furgonetak gaitzeaz arduratzen direnek hilabete inguru ematen dute zeregin horretan. Orain buru-belarri ari dira azken ukituekin, hilaren 18an joango baitira Atharratzera, 19an Korri-



OLHUI | IMFPB
Pasaia
Oinarrizko Lanbide Heziketako
Udal Institutua
Gure gazteak euskaraz hezten
INFORMAZIOA
Bidasoa kalea, 1-3, Trintxerpe. Pasaia. • T. 943 404894
www.fpb-olh.pasaia.org • E-mail: olh-fpb@pasaia.net

Sukaldaritza eta
Jatetxe-arloa
Etxebizitzaren
Mantentze-Lanak
(Iturgintza - Beroa)

PASAIKO UDALA

OARSO ELEKTRIZITATEA S.L.
943 25 91 79
electricidadoarso@gmail.com
kblelektrizitatea.eus

ka hasteko. Ordurako dena prest izan behar dute, motorrak piztu eta lasterkariaren bidelagun izateko. Lasterketa bukatu ondoren, furgonetak desmuntatu egingo dituzte, horiek itzultzeko.

Furgonetak gaitzeaz gain, gidariak ere Oiartzunen prestatzen dituzte. Furgoneten arduradunak eta gidariak bi taldetan banatzen dituzte, eta horiek guztiek probak egingo dituzte igande honetan (hilaren 15ean) Ugaldetxo industrialdean. Urkiak baietsi du furgoneta bat gidatzea ez dela kotxe bat eramatea bezala, ibilgailu horrek 6-7 metro inguru baititu, eta bihurguneak ezberdin egin behar dira. Horrez gain, gidari guztiek sorospen ikastaro bat egin dute, eta furgoneta guztiek desfibriladore bat izango dute.

Gidarien zereginak

Maika Tameron erreteriarra 2013an hasi zen Korrikako gidari gisa. Urkiaren bidez murgildu zen zeregin horretan, hark animatu baitzuen bolantea hartu eta Korrikan parte hartzera. Korrika,

gainera, «asko gustatzen» zaiola eta gidari izatea «oparitxo bat» izan dela aitortu du Tameronek. Aurten ez da gidari gisa arituko, baina azken aste-buruan edo egun solte batzuetan Korrikan izango da, bisitan.

Korrikako gidari izatea «bizi egin» behar dela adierazi du Tameronek. Batzuetan asteburuetan izan da soilik, baina Korrika osoa ere egin izan du erreteriarrak. Jendeak Korrikari egiten dion harrera «hunkigarria» dela onartu du Tameronek: «Jendeak gauetan eta edozein ordutan jasotzen gaitu. Gehien gauak gustatzen zaizkit, bereziki Pirinioen ingurukoak. Hor korrikalari gutxi izaten dira eta kilometro pila egiten dituzte. Oso polita da hori».

Bestalde, puntu kritikoak edo zailtasunezkoak ere izaten dituzte furgoneta gidariak. Horietako bat Oarsoaldean izaten da, lekukoak Pasaia badi gurutzatzen duenean. Aurten Donibane-tik San Pedrorra pasako da lasterketa hilaren 25eko goizean. Pasaia badi bezalako kasuetan, furgoneta bat badiaren

alde batean geratzen da, eta besteak beste aldean itxotzen du Korrikaren iritsiera. Horrez gain, herri handietan eta hiriburuetan adi egon behar direla baietsi du Tameronek, jende askok parte hartzen duelako. Horrelako uneetan tentsioa egoten dela aitortu du gidari oreretarrak. Jendea furgonetara igotzen denean ere kontuz ibili behar direla esan du.

Puntu zail bat izan badaiteke ere, Pasaia badi gurutzatzeko unea, baina, «oso polita» dela adierazi du Tameronek. Zati hori normalean traineruan egiten dela gogorarazi du, eta bera arraunlaria izan zenez, askotan egin du zati hori.

Aurrez aipatu bezala, furgoneten arduradunak bi taldetan banatzen dituzte, eta talde bakoitzak 12-14 ordu inguruko txandak egiten ditu. Txanda bakoitza bukatzen denean, talde horrek atsedena hartzen du, eta indarrak berreskuratu ondoren, aldaketaren puntura joaten dira talde aldaketa egiteko eta lasterketan jarraitzeko. ■



Leire Perlines Apalategi

JUDITH ARRUABARRENA UGARTEMENDIA OARSOALDEKO KORRIKAREN ARDURADUNA

Oarsoaldeko Korrikako arduraduna da oiartzuarra. Eskualdeko herri zein barruti bakoitza koordinatzea eta antolatzea da aurtengo Korrikan duen betebeharra.

LEIRE PERLINES APALATEGI

OIARTZUN

« Edozein ekarpen
ongi etorria
da gurean »

Oiartzungo Intxixu AEK-ko irakaslea da Judith Arruabarrena Ugartemendia oiartzuarra, baina baita 24. Korrikako Oarsoaldeko arduraduna ere. Koordinazio lanak eginda, aitortu du egun handiaren aurreko egunetan lanez gainezka dabiltzala.

Zer suposatzen du zuretzat Korrikan parte hartzeak?

Korrika txikitatik bizi izan dudan zer-bait da; zerbait berezia du, baina antolakuntzan sartzen zarenean, oraindik bereziagoa bihurtzen da. Emozio eta tentsio asko elkartzen dira dena ongi ateratzeko, eta dena ongi ateratzen dela ikustean izugarritzko emozioa izaten dugu. Finean, txikitatik datorkigun zerbait da.

SALSAMENDI

www.gestoriasalsamendi.com GESTORIA

Maria Lezo, 5 . Erretereria. Tel.: 943 52 43 02

Euskara gara!

- AHOLKULARITZA FISKAL ETA LABORALA
- TRAFIKOKO AGIRIEN KUDEAKETA
- AUTONOMOAK - ESKRITURAK

Patxi, gu ere euskara gara!

Aiton-Etxe

EGUNEKO ZENTROA

DIPUTAZIOAREKIN HITZARTUTA

PLAZA PRIBATUAK ERE BADITUGU

943 49 21 46 - 688 68 60 42 - OIARTZUN - www.aitonetxe.com

Zer suposatzen du eskualdeko ardura-duna izateak?

Eskualdeko AEK-ko kide guztiak ari gara jo eta ke lanean, baina, azkenean, nire lanak gehiago du koordinazio alorretik. Gure euskaltegiak ez daude barruti guztietan, eta eskualdeko eremu guztia da arduradunak kudeatzen duena, baina lanean denak gabiltza.

Zein talde edota eragile batu dira antolakuntza lanetara?

Batzordeetara gerturatu direnak eta, ondorioz, laguntzen ibili direnak ikastetxeak izan dira euskara taldeak, herrietako bestelako eragileak, gazte mugimenduak, talde feministak, auzo elkarteak, kirol taldeak, norbanakoak... denetik gerturatu da.

Zein dira koordinazio lanetan izaten dituzuen erronka nagusiak?

Eragile, herri edota barruti bakoitzak bere ezaugarriak ditu, eta denen arteko oreka eta koordinazioa bilatzea da zailena.

Nola antolatzen da lekukoaren ibilbidea eta kilometroen banaketa herrien artean?

Aurten aldaketa bat etorri da, eta orain egingo duguna da lekuko hartzei distantzia jarri. Beraz, kilometro jakin batean lekukoa partekatzen baldin bada, kilometro horren hasieratik eragile edo norbanako horiek batera sartu beharko dira lekukoa hartzera. Orain arte zatika joaten ginen sartu-atera dinamika horretan, baina hori ekiditeko sistema hau jarri dugu martxan.

Zein da boluntarioen eta herritarren papera antolaketa?

Laguntzeko hamaika modu daude: le-

kuko-hartzea eskuratzea, petoak erostea, edota antolatzaileen batzordeetara joatea, esate baterako. Batzorde horietan Korrika bera antolatzea izan daiteke lanetako bat, baita Korrika Txikia ere, edo Euskara zein Korrika egunak antolatzen esku bat botatzea... Horretaz gain, leku askotan tonbolak egiten ditugu eta bertako artisau, komertzio eta tabernariak euren ekarpenak egiten dizkigute. Edozein ekarpen ongi etorria da gurean.

Nolakoa izaten da Oarsoaldeko herri-tarren erantzuna Korrikaren aurrean?

«Poliki-poliki lortzen da nolabaiteko normalizazio horretara jauzia egitea»

Uste dut berezia dela. Harrera oso ona izaten du, jendea gogotsu eta zain egoten baita noiz iritsiko.

Aurtengo edizioan zer jarduera edo egitasmo berezi antolatu dituzue?

Betiko ohiturak jarraitu ditugu, baina Errigora omenduari garrantzia handia eman diogu.

Zure ustez, zein ekarpen egiten du Korrikak eskualdeko hizkuntza ohituretan?

Alde batetik, unea izaten da aldarrikatzeko euskara gure hizkuntza dela, baita hala dela sentitzeko ere. Euskal komunitatea ere sendotzen duela esango nuke, eta uste dut erakusten duena

dela badagoela euskaraz bizitzeko modurik. Eskualdea bera oso ezberdina da izaeraz, eta herriz herri edota auzo zein barruti bakoitzean hizkuntza ohiturak ezberdinak dira, baina gero eta jende gehiago animatzen da euskaraz egitera.

Bestetik, gure ikasleek ere Korrikak euren sentitzeen dute; urte guztiak zehar egoten dira gurekin eta poztasun handiz bizi dute. Poliki-poliki lortzen da nolabaiteko normalizazio horretara jauzia egitea.

Esango zenuke euskaraz hitz egitera ausartzen ez den jendea erakartzen duela Korrikak?

Euskararekiko nolabaiteko atxikipena duenak, baina gazteleraz edota beste hizkuntza batean bizi denak, ikusten du euskara ez dela gutxi batzuk bakarrik hitz egiten duten hizkuntza bat, eta uste dut horrek animatzen dituela parte hartzera edota hitz egitera.

Aurtengo Korrikan parte hartu edo ez zalantzan dagoen horri zer esango zenioke?

Nik animatuko nuke nolabait parte hartzera: hamar metro, ehun metro edota herri guztia zeharkatzera, korrika ari direnei animatzea, hasierako zein azken eguneko festara hurbiltzea... Korrika berezia da, eta, gainera, bi urte-tik behin pasatzen da. Gainera, euskararen aurkako oldarraldiaren aurrean, gure hizkuntza babesteko beste modu bat da. ■



Elkarriketaren bertsio luzea irakurtzeko, bisitatu webgune hau: oarsoaldea.hitza.eus



PASAIA - LEZO
LIZEOA

Matrikula zabalik
Martxoaren 16tik 27ra

BATXILERGOA

lizeoa.eus
943 526 850

Bazatoz?



ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAKO BATXILERGOA

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIETAKO BATXILERGOA


Euskararen sareak josita

Ahalegin bizia, Euskal Herrira bizitzera heldu eta euskara hautatzen dutenena; baita etendako transmisioa irauli nahi dutenena ere.

IKERNE ZARATE

Bolivia, Argentina, eta Kolonbiatik heldu ziren Euskal Herrira. Arrazoi ezberdinek ekarri zituzten, eta euskararen existentziaren berri ez bazuten ere euren jaioterrietan, aurrez aurre aurkitu zuten Euskal Herrira heldu zirenean. Euskara bera eta euskal kultura gertutik ezagutzeko eta bere egiteko saiakera bizia egiten ari dira orain hiruak, euskalduntze prozesuan murgilduta ari dira urratsez urrats hasieran arrotz zuten hizkuntza ezezagun hura bere egiteko, eta aldi berean, euskararen herriaren parte izateko.

Boliviatik etorri zen Rosmary Ochoa Calleja duela 17 urte. Iritsi zen unean



bertan izan nuen euskararen berri, baina Korrikaz hitz egiten euskaltegian entzun zituen lehen aldiz orain dela hiru urte, «orduan erabaki nuen euskara ikasten hasia eta euskaltegian izan nuen Korrikaren berri, euskara babesteko korri egiten zela». Bi urte eta erdi daramatza euskara ikasten; ez dela erraza dio, eskolak eta lana uztartzea zail izaten dela, «baina saiakera bizia egiten dut saioetara joateko». Oiartzu-

KABALA
 etxe - animalientzako pentsu eta osagarriak
 943 53 57 51 / 605 76 52 14
 Erdiko kalea 16. Errenteria. kabaladenda@gmail.com

Euskara gara!

AUTOTZERBITZU GASTROGAIKIA
 ETXERAKO ZERBITZUA
 ILEAPAINDEGIA AURTERO HIZKIDUNA

MAITEXA
 TABAKOAK OPARIAK

Euskara gara!

Bizente Elizegi, 3 . Errenteria . 943 51 21 10

EROSKI city

Herriko plaza, 8.
 Pasai San Pedro
 Tel.: 943 39 38 12



2024ko 23. Korrikaren irudia,
Irunen. kazeta.eus

nen ari da gaur egun lanean, eta bertan ari da euskara ikasten, Intxixu AEKn: «Aurretik Araman izan nintzen lanean, eta ohartu nintzen euskara lanerako zein integraziorako garrantzitsua dela. Han denek egiten zuten euskaraz, eta Oiartzunen ere euskaraz egiten da. Ez didate inoiz eskatu euskara jakitea lan egiteko, ez naute derrigortu, baina uste

dut garrantzitsua dela euskara jakitea, lanean ari naizen pertsonekin komunikatzeko, haiek ulertzeko. Lanaz harago, kuriositatea ere piztu zidan hizkuntzak haren berri izan nuen une beretik».

Euskalduntze prozesuan irakasleek jokatzen duten papera jarri du nabarmen Ochoak: «Garrantzia handia du, irakasle bakoitzak bere irakasteko ere-

raz. Haiekin praktikatzan dut eta laguntzen didate». Argi du euskararekin duen helburua: «Hizkuntza ulertzea. Jende euskaldunarekin ari naiz lanean azken aldian eta zertxobait ulertzen badiet ere, bide luzea dut aurretik. Arinago aritu nahi dut haiekin hitz egiten dudanean, baina horretarako oraindik bidea falta zait».

«Ez didate inoiz eskatu lanerako euskara jakitea, baina uste dut garrantzitsua dela»

ROSMARY OCHOA CALLEJA

EUSKARA IKASLEA

dua du, eta bakoitzak zerbait ezberdina transmititu dit. Oraintxe dudak irakaslearekin oso gustura nago, euskararen zirrikituak ulertzen laguntzen ari zait».

Jakin badaki berezia dela Korrika, mundu bat mugitzen duela euskararen alde, erraldoia dela, baina ez daki aukerarik izango ote duen parte hartzeko, «lanarengatik». Euskararekin harremana ere badu euskaltegitik eta lanetik kanpo. «Hiru iloba ditut, Bizkaian bizi dira eta primeran egiten dute euska-

Prozesuarekin pozik

Argentinako Kordobatik heldu zen Euskal Herrira Giuliana Gavilan *Shula*, eta Lezon bizi da gaur egun. Bertan ari da euskalduntzen, Oroitzene AEK euskaltegian. Hiru urte eta erdi daramatza Euskal Herrian, eta iazko urrian hasi zuen bidea euskaltegian. Korrika zer den euskaltegian bertan ikasten ari da. «Badakit bi urtean behin egiten dela euskararen alde, Euskal Herria ia osorik zeharkatzen duela, eta ez duela etenik egiten bidean, hamar egunez gau eta egun korrika emango dutela euskararen alde». 24. Korrikan parte hartzea izango duen itxaropena du, baina ezin ziurtatu, «kirolaria naiz eta astebete hemen ematen dut eta beste bat kanpoan, ez dakit bertan izango naizen; gustatuko litzaidake».

Euskara ikasteko hautua behin Lezora helduta egin zuen: «Donostian izan nintzen bizitzen aurretik eta han ez



Esther Sagasti Orodea
Ana Elizondo Iriarte
Barne Diseinua

Santxoenea 31. Errenteria. 679 70 39 44 - 605 76 53 16
www.sagastielizondodecoracion.com

Adi HITZAKIDE! 24. Korrikako produktu sorta bat dugu zuretzat

Pertsona batentzat produktu sorta bat:

- Lau kamiseta hainbat modelotakoak.
- Buff bat.
- Bisera bat.
- Lau giltzatako.



Parte hartzeko joan HITZAKIDE
TXOKORA martxoaren 17ra arte





«Ateak zabaldu dizkidate neu hemen izateko; nik ere egin behar dut ekarpena»

SHULA GAVILAN

EUSKARA IKASLEA

nuen sentitu beharra, gaztelaniaz ari-tuta lasai moldatzen nintzen edonon. Gaur egun Lezon bizi naiz eta herrian bertan, zein nire inguruan, askoz ere gehiago entzuten dut euskara, gustatu egiten zait jendea euskaraz entzutea, bertako kultura ere mantentzen dela ikustea. Lagunak eta bikotekidea euskaldunak dira, gainera. Haiek ateak zabaldu dizkidate neu hemen izateko, eta nolabait, sentitzen dut nik ere egin behar dudala ekarpena, euskara ikasi eta komunitatearen parte izateko».

Ikasketa prozesua nola daraman galdetuta, zintzotasunez erantzun du: «Zaila egiten ari zait euskara ikastea,

batez ere hasiera izan zen gogorragoa. Orain, sei hilabete pasata, pixkanaka aldaketak sumatzen hasi naiz, eta pozik bizi dut prozesua».

Motibazioa, gako

Euskalduntze prozesu betean ari da ere Marcelly Palacio Garrido kolonbiarra. Bera ere, Gavilan bezala, duela hiru urte heldu zen Euskal Herrira eta Erretereria-Oreteretan bizi da. Iazko urrian hasi zen bera ere euskaltegia, Xenpelar AEKn. «Erretereriako Udala-ren gutuna jaso nuen buzoian. Euskara ikastea garrantzitsua zela esaten zuen bertan. Etiket hurbil dut euskaltegia eta aurrematrikula egitera joan nintzen une horretan».

Urratsa iaz egin bazuen ere, euskararen interesa heldu eta berehala piztu zitzaioela adierazi du Palaciok: «Batez ere nire bikotekidea euskalduna delako, bertan jaioa da, eta berekin harremana hasi nuenetik euskara eta euskal kulturaren berri izan dut». Bikotekidea arrazoietako bat izan da euskarara gerturatzeko, baina ez, ordea, bakarra. Ochoa bezala, adineko pertsonekin ari da lanean Palacio, eta sinistuta dago askoz errazagoa dela haiekin aritzea euren hizkuntza ulertuta: «Pozgarria da haien zat euskaraz hitz egiteko aukera izatea. Hori beste bultzada bat



«Euskara ikastea ez da zaila, motivazioa baduzu; beste hizkuntzetatik ezberdina da»

MARCELLY PALACIO GARRIDO

EUSKARA IKASLEA

izan da euskara ikasteko. Arrazoi askok eraman naute euskara ikasteko prozesura».

Motibazioa jarri du erdi-erdian Kolonbiatik heldutakoak euskara ikasteko gako gisa: «Ez zait zaila egiten ari euskara ikastea, ez da zaila motivazioa baldin baduzu, baina bai aldrebesa [barrezka]. Gaztelania eta ingelesa dakizkit, eta logikaren bat bilatzen saiatzen naizenero, beste hizkuntzez dakidana ahazteko esaten dit irakasleak, euskaraz ez duela zerikusirik horiekin. Euskara ezberdina da, baina ez zait zaila iruditzen, motivazioa behar da».

Sei hilabete daramatza euskaltegia, eta dagoeneko nabaritu du kaletik doanean entzuten dituen elkarrizketetako hitzak ulertzen dituela, «musika ere euskaraz entzuten dut orain, eta esaldi batzuk ulertzen hasi naiz, badakit zer dioten». Erosketa egiteko garaian ere egin du jauzia, eta dakiena erabiltzen

www.oarsoak.com
Beerlagun  **GOAZEN KORRIKA!!**

UGALDETXXO INDUSTRIAGUNEA - ZUAZNABAR KALEA 137. OIARTZUN
TEL. 943 49 01 62. oarsoak@oarsoak.com

 SAGRADO ORAZON IKASTETXEA
TELLERI-ALDE ERRETERERIA

TELLERI-ALDEN ERE EUSKARA GARA!

 943 5112 33

 Bittor Idiazabal, 1, Erretereria.



saiazen da egunerokoan, «kaixo, egun on, eta halakoak esaten ditut, eta gauzak euskaraz eskatzen ditut».

Korrikaren berri Euskal Herrira heldu bezain pronto izan zuen, «bikote-kidearen lagunen bidez jakin nuen eta galdezka aritu nintzen. Jakin badakit euskararen erabilera sustatzea duela helburu, eta bitartekoak lortzea euskalduntzearekin jarraitzeko». 24. Korrika ate joka denean parte hartzeko aukera duen galdetuta penaz erantzun du ezetz, «lesioa dut bizkarrean eta ezin dut korri egin. Hala ere Errenteriatik pasatzen denean ikustera joango naiz, hori seguru!».

Transmisioa etenda

Euskal Herrian jaioa da Mikel Manterola Iglesias, Donostian bizi da eta aurten hasi da Antxoko Txirrita AEK euskaltegian euskalduntzen. Euskara ikastea erabaki du, bere hizkuntza delako: «Aita baserrikoa da, baina lotsagatik, euskara abarkadunen hizkuntzat jotzen zelakoan, ez zidan hitz egiten.



«Baserrikoa zen aita baina ez dut jasoeuskara etxean, eta beti izan dut pena hori»

MIKEL MANTEROLA IGLESIAS

EUSKARA IKASLEA

Pena da, baina euskara ez dut txikitan etxean jaso, eta beti izan dut nahigabe hori, euskaraz aitarekin hitz egiteko aukerarik eduki ez izana. Aurten lan ordutegiak eta eskolak bateratzea izan dut, eta hasi naiz euskara ikasten».

Ez da lehen aldia. Beste bi saiakera eginak dituela aurretik, eta bertan behera utzi zituela aitortu du, «arrazoi

ezberdinengatik ezinezkoa izan nuen jarraitzea, ez nengoen zentratua-eta; aurten oso gustura nago AEKn». Zaila ez, baina gogorra egiten ari zaiola dio: «Frustrazio pertsonal kontu bat dela esango nuke. Nahi dut ikasi, baina ez noa nahiko nukeen erritmoan, eta lana eta ikasketak uztartzea kosta egiten da. Hiru egunetan egiten ditut saioak, bi ordu eta erdikoa bakoitza, eta batzuetan kosta egiten da erritmoa mantentzea, nekearengatik».

Betidanik ezagutzen du Korrika Manterolak, eta 24. ekitaldian parte hartuko du. Aurretik ere izan da Korrikaren gaineko argazki eta bideo erreportajeak egiten. «Ez naiz Antxon izango lan kontuengatik, baina Donibane Garazin izango naiz, eta bide batez Youtuben dudak kanalerako bideoa egingo dut». Euskara ikastera animatu du Manterolak, «nire hizkuntza delako egin dut nik euskara ikasteko hautua, euskararen atzean antzinako kultura bat dago, ez dakigu nondik datorren, baina haren parte gara». ■



Lezoko Unibertsitateko Udala

Euskara zainduz
Lezo

Martxoak 25, Lezon

*Aditu Korrikaren deiadarra.
Izan gaitezen dardara, izan gaitezen indarra.
Piztu da Korrikaren garra!*



Egitaraua: www.lezo.eus



Goizaldean, goizean, eta bi egunetan

Ordutegiei dagokienez, aurreko ekitaldietan baino deserosoago dator Oarsoaldera nahiz Irun eta Hondarribira Korrika. Dena dela, sentimenduz eta esanahiz beterik den AEKren sostengurako jarduerarekin bat egiteko edozein ordu da ona, baldin eta horretarako moldatzeko aukera badago. Bi egunetan izango da 24. Korrika bi eskualdeetan, biak ala biak astegunetan: hilaren 24ko goizaldean Oiartzunen eta Irunen, eta 25eko goizean Irunen bigarren, Hondarribian, Lezon, Pasaiaiko lau barrutietan eta Erreterria-Oreteran. Herritar gehienek goiz-goiz altxa beharko dute ohetik Korrikarekin bat egiteko; izango dira lotara joateko aukera baztertu, eta martxaren zain esna izango direnak. Bi urtean behin izaten baita Korrika, eta merezi du lo egiteari orduak kendu, eta euskararen alde izerditzeak.

Oarso Bidasoko biztanleen lehen lekukoak oiartzuarrek hartuko dituzte

Hilaren 24ko goizaldean iritsiko da 24. Korrika Oiartzunera eta Irunera; 25eko goizean, Irunen berriz ere, Hondarribian, Lezon, Pasaiaiko lau barrutietan eta Erreterria-Oreteran izango da.

URKO ETXEBESTE PETRIRENA

hilaren 24ko goizaldean. Astigarragatik sartuko da herrian 24. Korrika, eta zehazki Oiartzungo lehen lekukoak 02:51an hartzen hasiko dira, 1.280. kilometroan. Herri osoa zeharkatu (1.299. kilometroraino), eta irundarrei eman-gio diete lekukoa hara Gurutze auzotik iritsiko baitira korrikalariak Katea auzoraino; 03:55erako dago iragarria Irungoen lehen lekuko-hartzea.

1.300. kilometrotik 1.318ra arte izan-

go da Irunen Korrika. Puntu horretan Nafarroako Berarantz egingo du bidea, 05:32 inguruan. Lasai izan daitezela irundarrak, hilaren 25ean ere izango delako hirian AEKren jarduera.

25ean, gehiago

24. Korrikaren bigarren eguna gurean hilaren 25ekoa izango da. Egun horretan, Hendaiaetik Irunera sartuko da berriz ere 05:09an, 1.563. kilometroan zehazki. Lau kilometro egin, eta hondarribiarrek helduko diote lekukoari 05:27etik aurrera, Mendelu aldeko 1.568. kilometroan hartuko baitute martxaren ardura hiri harresituko eragileek. Hiriari bira eman ondoren, Urdanibia aldean Irundik beste tartertxo bat egingo du Korrikak (1.588 eta 1.592 kilometroen artean), eta 1.593. kilometroan Lezori iritsiko zaio txanda Korrikarekin bat egiteko, Gaintxurizketan, 06:48an.

Lezotik Donibanerako tarte egingo du ibilbideak (07:32an hartuko dute pasaitarren lehen lekukoa), eta motoraz San Pedrorako egin ondoren (07:40), handik Trintxerperako bidea hartuko du. Pasaiaiko barruti populatuena utzi, eta Donostiako Bidebieta auzoa eta Herre-ra zeharkatuko ditu Korrikak, Antxora iritsi baino lehen (08:34).

Antxoko lehen zeharkaldia 1.638. kilometroarekin bukatuko da, han 08:43ak aldera oreretarren txanda hasiko delako; Oarsoaldeko herririk handiengan 1.659. kilometrorako arte izango da Korrika, eta handik Donostiarako bidea hartuko du, Antxotik berriz ere (09:15 inguruan) pasatuz. ■





Gobernu taldearen agerraldia, asteazkenean. Ikerne Zarate Gartziaarena

Auzibidea agortuko du udalak, zuzen ari delakoan

Udalaren LEPari jarritako helegitearen atzean antolatutako talde bat dagoela agerian utzi du 'Argia'-k. Ulertezina da udalarentzat euskara eta euskal hiztunak jasotzen ari diren tratua.

IKERNE ZARATE GARTZIARENA

Ez da ulergarria euskara eta euskal hiztunak jasotzen ari diren tratua. Esaldi horrek garbi adierazten du Errenteriako Udalaren LEPari jarritako helegiteak eragin duen egonezina. Euskararen kontrako oldarraldiaren enegarrenak hautsak harrotu ditu, *Argia*-k ikerketa lana egin, eta helegite horren atzean euskararen aurkako asmoz ari den talde antolatua utzi duelako agerian.

Agerraldia egin zuen Errenteriako Udaleko gobernu taldeak asteazken goizean —EH Bilduk eta Elkarrekin Errenteriak osatua—. Argi eta garbi adierazi zuen haien izenean Aizpea Otaegi alkateak hautaketa prozesuari jarritako hizkuntz eskakizuna ez dela «bat-bateko erabaki inprobisatua» izan, ezta gobernu taldearen «kapri-

txoa ere», kontrakoa baizik, «udalaren urteetako ibilbidearen ondorio koherentea da, epe luzeko helburuei erantzuten diena». Deialdira ateratako 25 lanpostuei jarritako hizkuntzarekin lotutako eskakizuna (C1 edo Hirugarren Hizkuntz Eskakizuna), Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailak emandako aldeko txostenarekin ez ezik, udalbatzak onartutako 2026ko lanpostuen zerrenda eta langileen plantillarekin zein sindikatu-ekin adostutako lan eskaintza publikoen plangintzarekin bat datorrela jarri du nabarmen. Hori horrela, udal ordezkariak uste dute helegitea adostasun eta kontsentsu zabaletan oinarritutako orain arteko bidea «oztopatzera» datorrela.

Prozesuaren gaineko argibide gehiago eman zituen Otaegik. Azaldu zuen

udalak ez duela prozesua bertan behe-
ra uztea erabaki, «baina prozesuarekin bere horretan aurrera egitea ere ez dugu erabaki egokitzat jo». Izena eman duten 860 hautagaiak babestu nahi izan ditu udalak, eta hainbeste izanik, hautaketa prozesua antolatzeko aurreikusitako baliabide baliabideen kudeaketa zuhurra egin. Prozesua behin-behinean etetea erabaki du udalak, eta irailean izango den epaiketarako ahalik eta ongien prestatzea erabaki.

Helegitea aurkeztu duen pertsona ez da udal langilea, ezta prozesuan izena emandako hautagaia ere, eta horrek, esku artean duten informazioarekin batera, helegitearen lehentasuna ez dela langileen lan egoera agerian utzi duela adierazi zuen alkateak, «bestelako motibazioak ditu». Gaineratu zuen, euskararen ofizialtasunaren esanahia eta ondorioak Espainiako Konstituzio Auzitegiak garatuak dituela, baita estatuko gainerako autonomia erkidegoetan ere: «Katalunia, Valentzia edo Galizian eskatzen da enplegatu publikoek bere erkidegoko bi hizkuntza ofizialak jakitea, eta hori guztia Konstituzio Auzitegiak berretsi du hainbat epailetan. Zergatik izan behar du deialdi honek, edo EAEn helegitea jarri zaizkien gainerako administrazioetako deialdiek araubide horrekiko salbuespena?».

Konpromisoa azaldu du udalak bitarteko guztiak jartzeko helegiteak aurka-ko ebazpena izan dezan, eta deialdiak aurreikusitako baldintzekin aurrera egin dezan, «administrazio aurreratu eta euskalduna izateko orain arte egingadako bidea, eta 25 administrazioen hautaketa prozesuaren deialdiarekin hautatutakoa zuzena eta egokia delako».

Elkarretaratzea

Eraso antolatuari erantzuna emateko elkarretaratzera deitu du gaur, ostirala, Oreretako Euskaltzaleon Pizkundeak. Protesta 19:00etan izango da CCOO sindikatuaren egoitzaren parean —Zumardian—. Izan ere, *Argia*-k egingadako ikerketaren ostean, Sabin Zubiri jarri du erasoaren buru. Zubiri CCOO sindikatuko erreferentzia nagusia da euskara eskakizunen arloan, eta Euskara Denontzat elkarteko presidente. ■

Korrika izan den aldiro egin bezala, AEKren sostengurako eta euskararen indartzeko martxa handiak Oarsoaldeko lau herrietan eta Irunen nahiz Hondarribian uzten dituen sentsazio, irudi eta bizipenak jasotzen saiatuko da HITZA hilaren 24ko goizaldean Oiartzundik eta Irundik pasatzen denean, eta 25eko goizean Irun berriz ere, Hondarribia, Lezo, Pasaia eta Erreterria-Orereta zeharkatzen dituenean. Korrika bizitzeko da; HITZA saiatuko da gertatu den hori kontatzen hitz, irudi eta bideo bidez.

Hasteko eta behin, esku artean duzun astekari honetako eduki guztiak euskarazko hedabide honen bi webguneetan (bidaso.hitza.eus eta oarsoaldea.hitza.eus) ikusgai izango dira gaur goizetik aurrera: 24. Korrikaren atal berezia egin du HITZA-k bere atari digitaletan. Horiez gain, Korrikaren inguruan sortu diren berri den-denen bilduma dago atal berezi horretan, bai-



Korrika bizitzeko da; HITZAren esku kontatzea

URKO ETXEBESTE PETRIRENA

23. Korrikaren une bat, Lezon, 2024ko martxoan. HITZA

ta zozketa erakargarri batean parte hartzeko aukera ere.

Behin Korrika pasatzen denean, lekuko eramaileen irudi guztiak publikatuko ditu HITZA-k, herrikoa, AEK-k emandako laguntzari esker; 24an Oiartzungoak eta Irungo lehenak, eta hurrengo egunean gainontzeko herrietakoak. Izan ere, Korrikaren antolatzaile den erakundeak martxa zabaltzen duen furgonetatik ateratzen ditu argazkiak, eta horiek ondorenean bere webgunean (korrika.eus) zintzilikatzen ditu. Bertatik Oarsoaldeko nahiz Irun eta Hondarribiko irudiak hautatuko ditu hedabide honek, bere webguneetan zabaltzeko.

Datozen egunetan Korrika Egunak, Korrika Txikiak eta bestelako asko izango dira herrietan. Horietan ere izango da HITZA, hitz eta irudi bidez Korrikaren emozioa zabaltzeko. ■

24.korrika **AEK**
Euskara gara

PARIS
MERTZERIA

Tel.: 943 52 46 87
Herriko Plaza 7 - Erreterria

Tejidos
Ami
Oihalak

@tejidosamioihalak

Martin Etxeberria kalea, 4.
Erreterria.
Tel.: 943 52 55 84

● Haur eta helduentzat Terapia Estrategiko Laburra
● Banakako, bikote eta familia terapia

JAKOBE
PSIKOTERAPIA
620.12.24.29

Jakobe Batanero Alvarez
Psikologoa GZ 1579
Xenpelar kalea 6, solairuartera,
5. bulegoa. Erreterria
www.jakobepsikoterapia.com

24.korrika **AEK**
Euskara gara

abotsanitz

Euskara gara!

EROSKI city

Olalde kalea 4/5 behe.
943 26 03 45 Altzibar.
OIARTZUN

Hondarribia ere euskararen alde!



Ayerdi Motor

**SALMENTA, MEKANIKA
ETA KARROZERIA**



INSTALAZIOAK: Jaizkibel hiribidea, 1 - LEZO
Tel. : 943344525 - ayerdimotor@ayerdimotor.com



www.ayerdimotor.com

HONDARRIBIA

Bihar (larunbata). Hondarribiko Korrika Eguna. 10:00etan, Madalen plazan, Mintzodromoa; 11:45ean, San Gabrieldik, batukadaren eta abesbatzaren kalejira; 13:30etik, Abiyuan txaranga; 14:30ean, Madalen plazan, herri bazkaria, haurren txokoa; 16:00etan, Madalen plazan, herriko musika eta dantza ikasleen saioak; 18:00etan, Madalen plazatik, erraldoien kalejira; 19:00etan, Portuan zehar, dantza-poteoa; 20:30ean, Madalen plazan, bingo musikatua; 21:30ean, Madalen plazan, musika; 23:00etan, Muaran, Dantza Gauda.

Etzi (igandea). 12:00etan, Psilocybeanean, Emakume musikariak oholtzan izenburupean, Gonekin Ero Bero podcastaren atalaren grabazioa.

Hilak 18, asteazkena. 10:00etan, Korrika Txikia; 14:00etan, Korrika Gaztea.

IRUN

Hilak 21, larunbata. Irungo Korrika Eguna. 10:30-13:00, auzoetan jarduerak; 12:00etan, Urdanibia Berriko eta

Kateako zutabeen irteera; 12:45ean, Artiako zutabearen irteera; 12:30ean, San Juan plazaren inguruan, triki-poteoa; 13:30ean, ekitaldia San Juan plazan; 14:30ean, bertso bazkaria EKTn Irubarren eskutik; 18:00etan, Urdanibia plazan, Skola Musik-en kontzertua; 20:00etan, Urdanibia plaza inguruan, Txintxarri txaranga; 22:00etan, kalejira Burrunba elektrotxarangarekin.

Hilak 24, asteartea. 12:30etik, Korrika Gaztea.

Hilak 25, asteazkena. 10:00etatik, Korrika Txikia.

ERRETERIA-ORERETA

Bihar (larunbata). Oreretako Euskara Gara Eguna. 12:00etan, Foru plazan, Baserriko porrusalda kale antzerkia eta Korrika Tonbola; 12:00etan, kantu jira; 13:00etan, Zumardiko karpa zabalduko dute; 14:30ean, herri bazkaria karpan; 16:00etan, karpan, lekukoen eramaileen aurkezpena; 16:30ean, bingo musikatua karpan; 18:30ean, karpan, DJ Jotatxo.

Hilak 26, osteguna. Goizean eta arra-

tsaldean, Korrika Txikiak herrian; 18:00etan, Badalaben, Hitz haztegia emanaldia Alaia Martin eta Olatz Salvadorrekin; 19:00etan, Niessenen, Zuhaitz Gurrutxagaren Nortasun agiria bakarriketa.

LEZO

Gaur (ostirala). 18:00etan, Oroitzene AEKn, petoen banaketa; 22:00etan, Txerrimuñon, Alperrak, tunanteak eta maleanteak ikuskizunarekin pintxo-potea.

Bihar (larunbata). 19:00etan, Gezala Auditoriumean, Laburbirako lanen emanaldia.

Etzi (igandea). 09:30etik, Karlos Saldise plazan, Xoxolurren Eskolarteko Ibilaldi Neurtua.

Hilak 24, asteartea. 15:30ean, Goiko Plazatik, Korrika Txikia.

Hilak 25, asteazkena. 18:00etan, Oroitzene AEKn, Korrikaren kantaren koreografia tailerra.

Hilak 26, osteguna. 11:30ean, Termikatik, Dinokorrika.

Hilak 27, ostirala. 12:00etan, Lezo Insti-



HORTZ KLINIKA
Fernández-Valderrama Egaña
www.fernandezvalderramaegana.com
info@fernandezvalderramaegana.com

Euskara gara
Astelehenetan:
9:00-13:00 / 15:00-19:00
Asteartetik ostegunera:
9:00-20:00
Ostiraletan: 9:00-15:00
Tel.: 943 52 41 61.
Gure Zumardia 24, behea.
PASAI ANTZO



samar
ADMINISTRAZIOAK
Biteri 45, behea. Erreterria-Orereta
943 50 32 24 - 688 71 43 14
samar.admon@gmail.com



Lezo Herri Eskola
HAZI, HEZI, ETA BIZI EUSKARAZ
Tel.: 943 514 804
info@lezoherrieskola.eus
www.lezoherrieskola.eus

LI
LEZO INSTITUTUA



ondartxo
taberna
bokatak eta pintxoak
Euskara gara!
Tel.: 657 31 86 73
Herriko Plaza, 8, 2. Orereta-Erreterria

tututik eta Pasaia-Lezo Lizeotik, Korrika Gaztea; 19:00etan, Kuadrillategin eta Faktorian, Mihiluze jolasa.

Hilak 28, larunbata. Lezoko Korrika Eguna. Xehetasunak, oarsoaldea.hitza.eus webgunean.

OIARTZUN

Gaur (ostirala). 19:00etan, Landetxan, Biziminak. Dolua hitzetan errezitaldia.

Bihar (larunbata). Oiartzungo Korrika Eguna. 10:30ean, udaletxean, haur eta gazte literatura solasaldia Mireia Delgado eta Dorleta Kortazarrekin; 12:00etan, Done Eztebe plazan, mutxikoak; 12:00etan, Landetxetik, erraldioen kalebuelta; 13:30ean, Done Eztebe plazan, petoen banaketa eta ekitaldia; 14:00etan, Done Eztebe plazan, herri bazkaria eta ondoren Irati Mateloren kontzertua; 17:30ean, Done Eztebe plazan, Elizalde Herri Ikastetxeko jarduerak; 19:30ean, Landetxan, Uran-zu dantza eta musika ikuskizuna; 20:30ean, Done Eztebe plazan, Iratzar taldearekin erromeria.

Etzi (igandea). 19:00etan, Landetxan, Pinpilipauxa horiak antzezlanak.

Hilak 16, astelehena. 18:00etan, Landetxan, Laburbirako lanen emanaldia.

Hilak 23, astelehena. 15:00etan, Hirubideko biribilgunetik, Korrika Txikia.

PASAI

Bihar (larunbata). Antxoko Korrika Festa. 11:00etan, Kultur Etxean, Zer esaten digu historiak? euskal mitologiari buruz hitzaldia; 14:30ean, herri bazkaria Ibaiondon; ondoren, bingo musikatua eta haurrentzako jolasak; 19:00etan, Joselontxo's txaranga.

Bihar (larunbata). Trintxerpeko Korrika Festa. 11:00etan, Azkueneko parkean, zumba saioa; 12:00etan, Serafin Esnaola plazan, haurrentzako jolasak; 12:00etan, Sastakai txaranga; 15:00etan, bazkari autogestionatua Gudarien plazan; 17:00etan, Gudarien plazan, mutxikoak; 19:30ean, Gudarien plazan, Muxutruk taldearekin erromeria; 22:30ean, Gudarien plazan, guatekea.

Hilak 22, larunbata. Korrika Eguna

Donibanen. 10:00etatik, Meipin hasita, gazteentzako ginkana; 12:15ean, Kitaldelpare txaranga barrutitik; 19:00etan, Juanba Berasategin, Lurdes Iriondo, ez gara alferrik pasako dokumentala.

Hilak 24, asteartea. 15:00etan, Trintxerpeko Korrika Txikia; 15:30ean, Antxoko eta Donibaneko Korrika Txikiak.

San Pedro. San Pedron ere egingo dituzte Korrikaren barruko jarduerak. Horien berri izateko joan oarsoaldea.hitza.eus webgunera.

Euskara



garai!

LANERAKO ETA OSTALARITZARAKO ARROPA
ETXEKO ARROPA
BARRURAKO ARROPA GIZONEZKOENTZAKO

Foru plaza, 21. Erreteria
Tel. / Faxe: 943 511 887

DEIKAGEST

Izen ematea:
**Martxoaren 8tik
aurrera**



labor.eus/DEIKAgest

OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA
DBHko Graduatua



ZURGINTZA – ALTZARIGINTZA
FABRIKAZIO MEKANIKOA

MEKANIKA ARROZTEGIA



Alaberga auzoa, 38 B
Erreteria-Orereta
info@fpberreterria.eus
Tel.: 943 52 95 33

Soldatak igotzeko, kalera aterar behar

Hilak 17an langileen arteko 1.500 euroko gutxieneko soldatak aldarrikatzeko greba orokorrera deitu dute. Mugimendu handiko eguna izatea espero dute ELA eta LAB sindikatueta kideek.

GORKA CORREYERO LLAMAS

Datorren asteartea, hilak 17, greba eguna izango da. Greba orokorra deitzeko arrazoia argia da: langileen arteko gutxieneko soldata propioa 1.500 eurora igotzea. Aldarrikapena aspalditik datorren kontua da, eta azken egunotan greba orokorraren egunaren nondik norakoak fintzen dabilta Jon Urkola ELA sindikatuko kidea eta Aratz Altzaga LAB sindikatuko kidea. Biek argi dute greba egitea ezinbestekoa dela langileek egungo egoera hobetzeko, «irtenbide bakarra da». Bi sindikatu horiekin batera Steilas, Etxalde eta Hiru sindikatuak ere egin dute greba orokorrerako deialdia.

Greba bat antolatzea ez da egun batetik besterako kontua, eta sindikatuak aurretiazko lanketa prozesu luzea egin dute. «2020ko greban ere 1.500 euroko gutxieneko soldata aldarrikatu genuen», gogorarazi du Altzagak.

Langileek gai horren gaineko iritziz garbia dute, «eztaba daezina da». Urkolak argi dio langile klasearen artean oso zaila dela soldatak altuagoak izan behar dutenaren aurkako iritzia bil-tzea. «Guk sententzia dugu toki guztietan baietz esaten digutela, arrazoia dugula, eta gaia garrantzitsua dela», gehitu du. Altzagak eta Urkolak gogorarazi dute langileen erantzuna zein izan zen: 150.000 sinadura inguru bildu eta Eusko Jaurlaritzan aurkeztu zituzten.

Eusko Jaurlaritzan ez zuten gaia eztabaidatu, eta egoera horren aurrean erabaki bat hartu beharra zuten sindikatuak. «Bi aukera genituen: gaia ka-xioan sartu eta lanketa egiteari utzi, edo aktibazio soziala bultzatu», azaldu du Urkolak. Sindikatueta kideek aho batez erabaki zuten gaiak merezi zuela eta grebara deitu behar zutela.

Orain arte jasotako erantzunarekin



Martxoaren 17ko grebaren kartelak, Erretereria-Oreteretan.
Gorka Correyero Llamas

M17-KO DEIALDIAK

- **Goizean.** Informazio piketeak industria-gune eta merkataritza zentroetan. 09:30ean, auto karabanak herriguneetara.
- **Arratsaldean.** Bidasoko manifestazioa, Irungo Mendeluko biribilgunetik, 18:00etan. Oarsoaldeko manifestazioa, Erretereria-Oreteretako Zumarditik, 18:30ean.

Euskara gara

Ikusi eta deskargatu

ZURE KILOMETROA



www.hamaika.eus/24korrika

Egin zure kilometroaren bideoaren eskaera eta bideoa jasoko duzu prest dagoenean

Jarraitu

24 orduz

ZUZENEAN

Hamaikan



hamaika



pozik dagoela azaldu du Altzagak, enpresa batzordeek aurkeztutako atxikimendu eskaera guztiak sinatu dira. LA-Beko kideak inoiz baino atxikimendu gehiago jaso dituztela nabarmendu du. Kuantitatiboki gutxi izan arren, kualitatiboki ia guztiak baieztuak izan dira, %90 gutxi gorabehera. «Horrek asko esan nahi du».

Aurreikuspenak beteta

Langileak mugitzen ari dira, eta mugimendu handiko eguna izango da datorren asteartekoa. Greba egunetan ohikoa denez, goizean goiz informazio

piketeak egingo dituzte Oarsoaldeko eta Bidasoko industria-guneetan eta merkataritza-guneetan. «Enpresak martxan direnean taldeak antolatuko ditugu batzarretan bozkatutakoa egia den edo ez ikusteko», adierazi du Altzagak. 06:00etan Bidasoko langileak Gabiria industria-gunean elkartuko dira, eta 09:30ean Hondarribiko Eroskiko aparkalekutik eta Gal futbol zelaitik kotxe karabanak abiatuko dira erdigunera. Mendibilen ere informazio piketeak izango dira ordu berean.

Oarsoaldean ere mugimendua izango da. 05:00etan dute lehen hitzordua Mamuteko aparkalekuan, eta bertan Erretereria-Oreterako greba batzordearekin batera piketeak antolatu dituzte. 07:30ean auto karabana antolatu dute Oarsoaldeko herrietara, eta behin buelta emanda, 09:00etan, Mamutera itzuli dira. «Egun osoan zehar intzidentzia sendoa egongo dela uste dugu».

Piketeak egin ostean, herriguneetara abiatuko dira grebalariak herriko merkataritzan ere borroka egunak eragina izan dezan. 12:30ean, Gipuzkoako manifestazio nagusia deitu dute Donostian, eta Pio XII plazatik Bulebarrera egingo dute. Oarsoaldeko eta Bidasoko langileei bertara joateko dei egin diete sindikatuetakoa kideek.

Arratsaldean, berriz, eskualde mailako mobilizazioak izango dira Irunen eta Erretereria-Oreteretan. Bidasokoa Mendelutik abiatuko da 18:00etan, eta hondarribiarrek eta irundarrek San Juan plazarainoko bidea egingo dute. Oarsoaldean, berriz, zutabeak antolatuko dituzte Pasaiaitik, Lezotik

eta Oiartzundik Erretereriako mobilizazioarekin bat egiteko: hango manifestazioa 18:30ean hasiko da, Gamon Zumardian.

Greba orokor deialdiaren garrantziaz galdetuta, sindikatuetakoa bi kideek argi dute horren muina politikoa dela. «Duela urte batzuk ezinezkoa zirudiena mugitzea lortu dugu deialdiarekin, Madrilen alderdi politikoei gaiarekiko duten birkokapena ikusten ari gara», azaldu du Urkolak. Aldiz, sindikatuak badakite martxoaren 18an langileek ez dutela gutxieneko 1.500 euroko soldata edukiko. «Hala ere, gaiarekiko berriak izango ditugu epe motzean». ■

ZORION AGURRA



Zorionak Fermo! Aunitz urtez!

IRUN. Muxu haundi bat Moskuko lagun partetik. Irunen nahi zaitugu! Euskal presoak etxera!

Saridunak:

HITZAkideen artean dortsal bat

Edurne Emazabel Izagirre

• Parte hartzaile guztien artean dortsal bat

Unai Moriones Salaberria

Eskerrikasko guztiei eta zorionak irabazleei! Gozatu!



HITZ GEZIDUNAK

Lehiaketan parte hartzeko, bidali hitz gezidunak osaturik **688 77 07 52** zenbakira whatsapp bidez (argazkia atxikituz), **denborapasakobh@hitza.eus** helbidera (gaian 'denbora-pasak zozketa' jarrita) edo OARSO BIDASOKO **HITZAKO bulegora** (Irun kalea 8, Errenteria-Orereta) eramanda.
Epe muga: datorren asteazkeneko 12:00ak arte jasotako orrialdeak izango dira onartuak.

	Barazki lekadunak	Senidea	Jaurti	Artelaren egoitza	Pl., artilleria pieza
	◆ Deitura	◆ Izena	101		Zatia
				Upela, kupela	
				Trebe	
	Senide-tasun				
	Zerbitzatu				
Atariak	Ez ilun		Leitzarango udalerrria		
Ogi saskiak	Silaba nabarmentzekoa		Sinbolo sistema		
				Leku	
				Akatsak	
Zangoaren atal			Landare arantzatsu		Bokal errepikatua
Pl., azalera unitatea			Gizon izena		Ihar, argal
		Udaldi			Potasioa
		Zangoaren muturrean			Animatzeko hitza
Leherkari ezaguna		Onartua			
Lore apaingarria		Zer tokitan?			Edari bizi
			Zikoitz, zeken		
			Lotan		
Urrea	Inbutua			Urlehortar mota	
Urteko 6. hilabetea	Bokal mehea			Bokala	
			Bizkaieraz, aran		

MAILAZ MAILA

Mailaz maila hizki bakar bat aldatuta, 8 urratsetan iritsiko zara Oiartzungo ARTEAGA baserritik udalerrri bereko SARASTI auzora

- 1.- Oiartzungo baserria
- 2.- Gipuzkoako kostaldeko udalerrria
- 3.- Aritzea
- 4.- Baselizak
- 5.- Pl., hipotesien multzo egituratua
- 6.- Parasola, euritakoa
- 7.- Ate inguruak, atarteak
- 8.- Usain txarra
- 9.- Oiartzungo baserria

A	R	T	E	A	G	A
S	A	R	A	S	T	I

MARTXOAREN 6ko ASTEKARIKO DENBORAPASEN ERANTZUNAK

SUDOKU

3	1	4	6	9	2	8	5	7
2	9	7	5	3	8	1	4	6
6	5	8	4	7	1	2	3	9
7	2	5	9	1	6	3	8	4
9	6	1	3	8	4	5	7	2
4	8	3	7	2	5	9	6	1
1	7	6	2	5	3	4	9	8
8	3	9	1	4	7	6	2	5
5	4	2	8	6	9	7	1	3

HITZ GEZIDUNAK

K	A	A	A	P
M	E	N	D	I
P	A	I	R	A
M	B	A	R	N
S	E	G	A	O
K	O	N	P	A
G	A	R	A	I
N	I	K	K	A
B	I	L	E	R
K	A	T	A	K
K	A	K	A	T



OARSO BIDASOKO HITZA
Irun kalea 8, behea
20100 (Errenteria-Oretera)

URTEKO HARPIDETZA KUOTA 85€



HITZAKIDE^{en}
TXOKOA



**DENBORAPASAK
ASTEKO SARIA
OARSO BIDASOKO
HITZAREN 2026KO
POLTSA ETA KOADERNOA**
'Gu sortu ginen enbor beretik
sortuko dira besteak'.
www.hitza.eus



**DENBORAPASEN
SARIDUNA**
ANDER TARRAGONA GOÑI
MAHALAREN PRODUKTUEN
SASKIA. Mahala Baserria -
Leaburu. info@mahala.eus
www.mahala.eus



Kultur emanaldi guztietarako sarrera bikoitza
ADI! ASTERO SARRERA BERRIAK HK TXOKOAN



HILABETEKO ZOZKETA



Telefonoz parte hartzeko
eskaintza zenbakia:

61

LA PERLA
**FORMAN JARTZEKO TALASO
ZIRKUITUA**
Lagun batentzako bi sarrera

Kontxako pasealekua z/g
Donostia
Tel.: 943 45 88 56
www.la-perla.net



Telefonoz parte hartzeko
eskaintza zenbakia:

62

**URDAIBAI BIRD
CENTER**
Bi lagunentzako bina sarrera

Aranzadi Zientzi Elkartea
Orueta 7, Gautegiz Arteaga
Tel.: 946 25 11 57
portuzar@birdcenter.org
www.birdcenter.org



Telefonoz parte hartzeko
eskaintza zenbakia:

63

**LEITZARAN
FERRATA BIDEA**
Lagun batentzako bi sarrera

www.leitzaran-andoain.eus

Zozketan parte hartzeko deitu 943 09 06 08 telefonora edo sartu gure webguneetako HITZAKIDE TXOKOA atalean, apirilaren 22a baino lehen. Saridunen izenak apirilaren 26an argitaratuko ditugu.

Zozketetan parte hartzeko egin zaitez HITZAKIDE!

Nola? 943 34 03 30 zenbakira deituaz edo sartu oarsoaldea.hitza.eus/hitzakide/izan edo bidaso.hitza.eus/hitzakide/izan helbideetan.

Pasaian ere euskara gara!

**Martxoak 25,
asteazkena**

- **Pasai Donibane: 7:22**
- **Pasai San Pedro: 7:30**
- **Trintxerpe: 7:37**
- **Pasai Antxo:**
8:25 Errenteriarantz eta
9:09 Herrerarantz

